

Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

B A T Z O R D E P A R E K I D E A

2014ko ekainaren 18a

Urtero ekainean egiten den Batzorde Parekidean datorren ikasturterako gaiak aztertzen eta eztabaidatzen dira. Oraingo honetan hauek izan dira gaiak:

1. **Datorren ikasturterako plazen azterketa**: Puntu honetan agerian geratzen da:

- Administrazioak erabiltzen dituen datuak eta sindikatuoi ikastetxeetatik helarazten dizkigutenak/dizkiguzuenak ezberdinak direla. Beraz, ikastetxeetan dauden beharrei aurre egiteko Administrazioak jartzen dituen giza-baliabideak (kolektibo ezberdinetakoak) nahikoak diren edo ez baloratzeko unean kriston eztabaidak sortzen dira. Gainera, beraien datuak eskatu badizkiegu ere, inoiz ez dizkigute luzatzen. Azkenean, **baten hitza bestearen kontran geratzen da ezer konpondu gabe.**
- Datorren ikasturtearen hasieratik hainbat ikastetxeetan arazoak egongo direla aurreikusten dela arrazoi simple bategatik: Orokorrean plazen kopurua mantentzen bada ere, Administrazioak, bere irizpide propioak ezarriz, ez baitie ematen ikastetxekoei eskatutako giza-baliabideak. Hau da, **beharrak zein diren ezagutzen dutenei/duguneik kasurik ez diete/digute egiten.**
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen inklusiorako Administrazioak aplikatzen duen lehenengo irizpidea ekonomikoa dela. Horren ondorioa guztiok bizitzen dugu gure eguneroko lanean, ikasleei eman ahal diegun arreta ez da guri gustatuko litzaigukeena eta azken kaltetuak, ikasleak.

STEE-EILASen pentsatzen dugu ezin garela konformatu plazen kopurua mantentzearekin. H.p.b.-k dituzten ikasleen kopurua ezagutzen ez badugu ere, ondo dakigu azken urteetan lan zama handitu digutela gure ordutegiak gero eta gehiago estutuz eta arreta emateko ikasleen ratioa handituz.

Hori dela eta, STEE-EILASetik salatzen dugu Administrazioak ikasleen beharrak modu egokiz erantzuteko behar diren giza-baliabideak jartzen ez dituela eta, zuen laguntzarekin, datorren ikasturtearen lehenengo egunetik eguneroko lanean emango diren hutsuneak, egoera latzak, gehiegikeriak... salatzen jarraituko dugu. Horretarako, eskertuko genizueke zuen ikastetxeetako egoera zein izango den guri helaraztea.

2. Behin-behineko esleipena:

- *Zentru Terapeutikoak:* Zentru hauen plazak datorren ikasturtean berriro Hezkuntza Laguntzako espezialista finkoei luzatzeko Administrazioaren ezezkoaren aurrean, **STEE-EILASek bi proposamen aurkeztu zituen.** Administrazioak ez bata ez bestea ez zuen onartu, judizialki aukera horiek ez direla aplikatu esanez. Horren ondorioz, eta azken momentuko aldaketarik ez badago, zentro terapeutikoen plazak Eibarren esleituko zaizkie ordezkoei. Ez zeuden proposamen gehiagorik mahai gainean.
- *Autodesplazamendua:* Deialdia ekainaren 30ean aterako da. **STEE-EILASek aldaketa bat proposatu zuen** langile finkoei aukerak emateko ez bakarrik lurralde batetik bestera mugitu ahal izateko, baizik eta lurralde bereko berritzegune batetik bestera ere. Administrazioak hau ere ez digu onartzen. Ez zeuden proposamen gehiagorik mahia gainean.

3. Hezkuntza Laguntzako Espezialista finkoen esleipena: esleipenatarako irizpideak

Administrazioak sindikatuoi akordio bat aurkezten digu hitzarmenean jasota ez dagoen balizko egoera baten aurrean irizpidek finkatzeko.

Egoera hau izango litzateke: Langile finko bat ikastetxetik suprimitua geratzen bada eta bere berritzegunean ez badago plaza gehiagorik, berritzegunetik suprimituta nor geratzen den erabakitzeke.

Aurreko bilera batean guztiok adostu genuen Berritzegunetik suprimitua izan behar dela antzinatasun gutxiago daukan langilea. Baina, Administrazioak beste urrats bat gehiago eman nahi du eta aurkeztutako akordioan proposatzen diguna da, Berritzegunetik kanpora joan ondoren, plazen banaketa nola egin behar den geratzen diren langileen artean. Akordio honen arabera, zerotik hasita antzinatasunaren arabera plazak banatuko lirateke atzetik daudenak beraien ikastetxeetatik mugituz.

STEE-EILASetik gai honi buelta pare bat eman beharko diogula adierazi genuen horren ondorioak edota balizko beste aukera batzuk aztertu ahal izateko.

4. Jornada murriztuetan bazkaltzeko denboraren konputoa:

Puntu honetan ere, Administrazioak akordio bat luzatzen digu sinatzeko. Akordio horren arabera, jornada partzialetan bazkaltzeko denbora proportzionalki konputatuko da.

STEE-EILASek galdera simple bat egiten du jakiteko ea horrek suposatzen duen, adibidez, 20 ordutako jornada baten barruan, 22 minutu egunero bazkaltzeko denbora konputatuko den. Administrazioak konturatzen da momentu horretan beraien aldetik hori aplikaezina izango dela eta akordioa mahaitik baztertzen du.

STEE-EILASek sektoreko langileen arazoak konpontzeko akordioak eskatzen ditu, ez sinatu eta gero zakarrontzira joango direnak arazo berdinarekin jarraituz. Hori dela eta, Hezkuntza Bereziko kolektiboen aurrean Administrazioak azaltzen duen arduragabekeria salatzen dugu. Ezin dute langileon ilusioa piztu akordio batekin, hori azkenean ez dela gauzatuko aurretik jakinda, aurreakordioarekin gertatu zen bezala, eta sindikatu guztiok eta Administrazioak sinatu bagenuen ere, inoiz ez dela gauzatu, nahiz eta hori lortzeko borrokan jarraitu.

5. Ibiltaritzako indemnizazioa:

Gai honetan akordio batera heltzeko, Administrazioak berriro aurkezten digun proposamena onartezina da. Fisioterapeutek, logopedak, terapeutek... beraien lana burutzeko egin BEHAR dituzten joan-etorrien kostua (denbora eta dirua) haien gain utzi nahi du Administrazioak.

STEE-EILASek hau ezin du onartu. Horregatik, behin eta berriro ibiltarien araudia aplikatzea eskatuko dio Administrazioari.

STEE-EILAS



ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00	Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55

Email: araba@stee-eilas.org

Email: bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org